



EBAZPENA, 2011ko azaroaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariarena, Karmele Barturen Ibarzabal andreak jarritako gorako errekurtsua aintzat hartu izanaren ondorioz zuzendari beraren 2010eko uztailaren 19ko ebazpena aldatzen duena (Ebazpen haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuaren lehiaketa-fasean lehiatzaileek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman ziren).

Karmele Barturen Ibarzabal andreak gorako errekurtsua jarri zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko uztailaren 30eko ebazpenaren kontra (Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuan aukeratutako lehiatzaileen behin betiko zerrendak argitara eman ziren), Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko Osasun- eta Laguntza-prozedurak espezialitatean eta txanda librean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko uztailaren 22ko aginduaren bidez aintzat hartu zen Karmele Barturen Ibarzabal andreak jarritako gorako errekurtsua eta, ondorioz, areagotu zen lehiaketa-fasean esleitutako puntuazioa deialdiaren I. eranskinaren III.1. atalean, argitalpen didaktiko edo zientifikoei buruzkoa. Guztira 0,75 puntu eman zitzaizkion atal horretan.

Ondorioz, eta horren arabera

EBATZI DUT

Lehena.- Aldatzea Karmele Barturen Ibarzabal hautagaiari, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko uztailaren 19ko ebazpenaren bidez, lehiaketa-fasean esleitu zaion behin betiko puntuazioa, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko Osasun- eta Laguntza-prozedurak espezialitatean eta txanda librean, ondorengo terminoetan:

III.1. atalean

0,0000

esaten duen tokian,

0,7500

esan behar du.

III. atalean

0,0000

esaten duen tokian,

0,7500

esan behar du.

Gutzizkoan

6,3130

esaten duen tokian,

7,0630

esan behar du.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan azalduko da, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrietan ere: <http://www.irakasle.net> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net> .

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 16a

LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA

JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA